

Musika klasiko garaikidearen arloko sorkuntza musikagile gazteen artean suspertzeko, eta musikako lengoaia, joera eta adierazpideen ezagutzaren bidez garapen soziala sustatzeko, honako deialdi hau egin dugu

MUSIKAGILE GAZTEEN
XXXII. SARIA
SGAE FUNDAZIOA - CNDM
2021

BASES

01 Munduko edozein herrialdetako musikagileek parte hartu ahal izango dute deialdian, eta lanak edozein lengoaia edo joera estetikatokoak izan ahalko dira, betiere musika garaikidearen arlokoak badira. Gainera, parte-hartzaileek **ez dituzte 35 urte eduki behar deialdia ixten denean**, eta SGAEko bazkide izan behar dira. 2018. urtetik aurrera deitutako edizioetan lehen saria lortu duten autoreek ezin izango dute parte hartu. Egile bakarreko lanak soilik aurkeztu ahalko dira eta parte-hartzaile bakoitzak lan bakar bat aurkeztu ahalko du.

02 Musika-lanek bost interprete izan beharko dituzte gutxienez eta zortzi, gehienez. Gainera, honako musika-tresna hauek bateratu ahal izango dituzte:

- **Flauta** (pikolo-dobla / soleko flauta) - Interpretatzaile bat
- **Si b-ko klarinetea** (klarinete baxuko dobla) - Interpretatzaile bat
- **Tronpa** - Interpretatzaile bat
- **Perkusioa** - Interpretatzaile bat: 5 zortzidunerainoko marinba, bibrafonoa, gran cassa dunbala, 2 tom, 2 konga, 2 plater (ridea eta crash-a), tam tam bat, gozatutako krotaloen joko (zortzidun bat) eta orkestrako estandarren arabeko beste perkusio txiki bat. Musikagileak perkusio txikiko ezohiko musika-tresnen erabilera proposatu ahal izango du, betiere berak badakartza.
- **Pianoa** - Interpretatzaile bat
- **Biolina** - Interpretatzaile bat
- **Biolontxeloa** - Interpretatzaile bat
- **Elektronika** - Honako baliabide hauek edo horien baliokideak erabili ahal izango dira: 32 sarrera eta 12 irteera dituen Yamaha QL5 nahasketa-mahaia, 16 sarrera eta 8 irteera dituen Yamaha RIO stagebox digitala, 11 mikrofono (mikrofono 1 instrumentuko, 2 mikrofono pianorako eta 4 perkusiorako), agertokiko 4 monitore, PA autoanplifikaturako Meyer Sound sistema eta ordenagailu eramangarri 1, audio estereoko fitxategiak erreproduzitzeko. Ordenagailu hori ez da egongo konfiguraturata audio multipisten fitxategiak (bi kanal baino gehiago) erreproduzitzeko, eta ez du izango softwarerik audioen sekuentziak denbora-zehaztasunez erreproduzitzeko ezta softwarerik ere modua ematen duenik audio-seinaleak zuzenean emateko. Kasu horietarako, konpositoreak ordenagailua ekarri beharko du beharrezko softwarearekin eta soinu txartelarekin konfiguraturata hala behar izanez gero. Era berean, lanak eskatzen badu audio sekuentzia edo audio prozesuak zuzenean jaurtitzea interpretazioarekin sinkronizatuta, konpositoreak halaber ekarri beharko du pertsona bat arduratuko dena zuzenean egiteaz parte informatikoaren operatiba/interpretazio hori.

03 Lehiaketara aurkeztutako lanak argitaragabeak izango dira, ez dira aurretiaz jendaurrean interpretatutakoak izango eta ez dira aurretiaz beste lehiaketa batean saritutakoak izango.

04 Lanen gutxieneko iraupena zazpi (7) minutukoa izango da; eta gehienekoa hamabi (12) minutukoa.

05 Lehiaketara aurkeztutako musika-lanen batek musikagilearenak ez diren musika-atalak txertatzen baditu, musikagile lehiakideak atal horien eskubidedunen baimena duela egiaztatu beharko du. Baimena SGAE Fundazioari aurkeztu beharko zaio lehiaketan parte hartzeko eskaera aurkezteko unean. Baimenik aurkezten ez badu, lehiakidea lehiaketatik kanpo geratuko da automatikoki. Era berean, besteren obra-zatiak erabiliko direla adierazten ez badu, eta hori hautaketa-prozesuaren edozein fasetan agerian geratzen bada, lehiakidea lehiaketatik kanpo geratuko da automatikoki.

06 Lehiakideen anonimatua babesteko asmoz, lanaren jatorrizko izenburua eta leloa (lanaren izenburua ez bezalakoa) zein diren adierazi beharko da partiturak aurkeztean, eta autorearen izena ez da orrialde bakar batean ere azalduko. Partiturak smoralg@fundacionsgae.org helbide elektronikora bidaliko dira. Partiturekin batera, honako informazio hau bidali beharko da: autorearekin harremanetan jartzeko datuak, NANA edo pasaporte eskaneatuta, SGAEko Lan Adierazpena eskaneatuta (lehiaketara aurkeztutako lana aldeztu aurretik erregistratuta dagoela egiaztatzeko) eta, gehienez ere 30 lerro dituen curriculum vitae laburra. Era berean, SGAE Fundazioaren eta CNDMren aldeko berariazko baimena aurkeztuko dute, sari honetarako beharrezkoak diren gestio guztiak egiterakoan haien datu pertsonalak erabiltzeko baimena izan dezaten. SGAE Fundazioak bermatuko du partiturak obra finalistak hautatzeko ardura duen epaimahaiaren aurrean aurkeztuko direla, lanen egiletza, egileen sexua edo jatorria aipatu gabe, batzordearen neutraltasuna eta eskatzaileen aukera-berdintasuna bermatzeko.

07 Lanak 2021eko irailaren 10era arte (ostirala) bidali ahal izango dira, bide telematikoz soilik. Baldintza guztiak betetzean antolatzaileek lehiatzeko onartu dituzten lanen zerrenda www.fundacionsgae.org eta www.cndm.mcu.es web-orrietan argitaratuko da.

08 Onartutako partitura guztien artean, musikako aditu nabariet osatutako epaimahaiak lau lan finalistak aukeratu ditu. Lan horiek hautatu ondoren, sariaren antolatzaileek egileen izenak jakinaraziko dizkiete epaimahaiari, akta sinatuaren bidez egiaztatuko da, eta emaitzak komunikabideei jakinaraziko zaizkie. Lehen informazio ofizialean, lehiaketara aurkezteko orduan lanek aukeratutako leloa zein izan den adieraziko da. Harrezkero, gero informazioetan lan finalistaren izenburua eta autorearen izen-abizenak baino ez dira aipatuko.

Lehiaketako azken etapan, epaimahaiak sariak esleitu ditu deialdiko erakunde antolatzaileek horretarako atonduko jendaurreko entzunaldiaren amaieran. Epaimahaiaren erabakia apelaezina eta subiranoa izango da. Lehiaketaren hezkuntza-, gizarte- eta sustapen-helburuen arabera, epaimahaiakideek eman gabeko saririk egon ez dadin lortu beharko dute.

09 Honako hauexek izango dira sariak:

	Xavier Montsalvatge Lehen saria	6.000 € eta diploma
	Carmelo Alonso Bernaola Bigarren saria	3.000 € eta diploma
	Francisco Guerrero Marín Hirugarren saria	1.500 € eta diploma
	Juan Crisóstomo Arriaga Ohorezko aipamena	1.200 € eta diploma

10 Antolatzaileei eta Espainiako Gazteria Musikalari esker, JM España sari berezia emango da. 2021eko edizioako Konpositore gazteentzako SGAE Fundazioa-CNDM sariketan Xavier Montsalvatge saria irabazten duen egilea Espainiako Gazteria Musikalak bultzatutako Musika Sarearen 2022-2023 aldiko Konpositore Gonbidatua bihurtuko da. Espainiako Gazteria Musikalak ganbera-musikako hiru (3) konposizio sortzea eskatuko dio, konposizio bakoitzeko mila euroko kostua (1.000€, zergak barne) bere gain hartuta. Konpositoreak Espainiako Gazteria Musikalak Musika Sareko kontzertu-zirkuituaren hurrengo denboraldirako programatuko dituen hiru bakarlari eta

talderen artean aukeratu ahalko du bere obra norentzat sortuko duen. Xavier Montsalvatge saria ex aequo ematen bada, bi konpositore irabazleei bina konposizio sortzeko enkargua egingo zaie, eta haietako bakoitzak mila eta bostehun euro (1.500€, zergak barne) jasoko ditu guztira. Edozelan ere, obren iraupena 5 eta 10 minutu bitartekoa izango da. Irabazleak Konpositore Gonbidatua izateari uko egin ahalko dio eta, kasu horretan edo lehen saria eman gabe geratzen bada, Espainiako Gazteria Musikalak hiru finalistei eskainiko die Konpositore Gonbidatu bihurtzeko aukera, horien emaitzen ordenari jarraituz.

11 Lan finalisten musikagileek ahal bezain laster aurkeztuko dizkiete antolatzaileei partitura orokorraren kopia eta erabilitako txantiloiko musika-tresna bakoitzaren materialak, behar bezala zenbakituta. Partituran eta musika-tresna bakoitzaren materialetan, lanaren izenburu ofiziala agertu beharko da SGAEen erregistratutako moduan, baita musikagilearen izen-abizena(k) ere, partitura guztietan erabilitako ohiko kanonen arabera, aurretiazko entseguetan eta lan sarituen berri emateko jendaurreko entzunaldian erabili ahal izateko. Era berean, finalisteek euren lanari buruzko iruzkin idatzi labor bana eta fitxa biografiko-artistikoaren formatua daukan curriculum eguneratua bidali beharko dituzte, jendaurreko azken entzunaldi horretako egitarau inprimatuan sartzeko.

12 Lehiaketaren azken fasea jendaurreko kontzertua izango da, zeinetan musika-talde profesional batek lau musika-lan finalistak joko dituen. Kontzertu hori 2021eko azaroaren 15ean (astelehena), izango da, Madrilgo Reina Sofia Arte Zentro Museo Nazionaleko 400 Entzunaretoan, hain zuzen ere CNDMren SERIES 20/21 kontzertuen denboraldiaren barruan. Kontzertuaren amaieran, atsedenaldira laburra egin ondoren, epaimahaiak aktaren bidez emango du bere erabakiaren berri. Antolatzaileek beretzat gordetzen dute jendaurreko kontzertuaren tokia aldatzeko eskubidea, baldin eta, inguruabar justifikatuak direla medio, kontzertu hori egitea posible ez bada. Hori gertatzen bada, lan finalisten musikagileei aurrerapen nahikoaz jakinaraziko zaie.

Sariaren antolatzaileek eskainitako aukeren euskarria berdintasun-araubidepean izango da beti lehiaketan parte hartzen duten guztientzat, lanak eszenaratu eta interpretatzeko orduan. Horretarako, entzunaretoiko ohiko posizioaren kontzeptua eta azken kontzertuaren ezaugarriak hartuko dira kontuan. Kontzertu horretan lanen baten ezohiko interpretaziorik egin nahi izanez gero, erakunde antolatzaileek hartu beharko dute erabakia, musikagileek partituran proposatutako iradokizunak edo aukerak aztertu ondoren.

Kontzertura joan nahi duten musikagile finalisten bidaiak eta ostatua ez dira antolatzaileen ardurapean egongo.

13 Lau musika-lan irabazleak zabaltzen laguntzeko, SGAE Fundazioak sustapen-diskoa ekoiztuko du 12. puntuan jasotako jendaurreko kontzertuan bertan jotako lan irabazleen musika-joaldian sortutako grabazio guztiekin, interpretazioaren lekukotasun-izaerarekin, eta horiek argitaratu eta hurrengo 12 hilabeteetan sustapen-asmoz zabaltzearen. Diskoek ekoizpen eta sustapen-ustiapenari ekiteko, SGAE Fundazioa arduratuko da beharrezkoak diren baimenak eskatzeaz. SGAE Fundazioak, 12 hilabeteak igaro ondoren aleak gordeko dituela eta eskatzen dituzten musikagile irabazleei emango dizkiela agintzen du. 2 urte igaro ondoren musikagileek aleak erreklamatzeko ez badituzte, SGAE Fundazioak horiek suntsitzeko edo doan banatzeko eskubidea izango du, musikagile irabazleari jakinarazi gabe.

Musikagile irabazleek lehiaketan lortutako sariaren berariazko aipamena egin beharko dute euren jakintzapean lan sarituen inguruan egindako jendaurreko joaldietan, grabazioetan edo beste edozein komunikazio-ekitalditan. Bestetik, deialdia egiten duten erakundeek ahalmena izango dute lan irabazleen pasarteak komunikabideetan askatasunez zabaltzeko ahal izateko (gehienez ere, hiru minutuko sustapen-zabalkundea izango da).

14 Finalista moduan hautatuak izan diren egileek baimena ematen diote SGAE Fundazioari musika-lan argitaragabearen lehen zabalkundea —sari honen esparruan, oinarri hauen 12. puntuan jasotako jendaurreko kontzertuan egingo den joaldian aurkeztu dena— nahiz kontzertuan bertan joko den lanaren lehen finkapena —euskarri fisikoan egingo dena— egiteko. Horretarako, musikagile finalista bakoitzak paragrafo honetan azaldu diren emanaldiak egiteko behar diren jabetza intelektualeko eskubideak lagatzen dizkio SGAE Fundazioari, eskusibotasunik gabe.

15 Finalista moduan hautatuak izan ez diren lanei buruzko agiri guztiak hautaketa-epaimahaiaren erabakiaren osteko hurrengo hogeita hamar (30) egunetan baino ez dira gordeko.

16 Musikagile parte-hartzaileek plagioaren edo Espainiako jabetza intelektualari buruzko indarreko legeriaren beste edozein urraketa onorioz sortutako edozein erantzukizunetatik aske utziko dituzte SGAE Fundazioa eta CNDM, lehiaketako beste parte-hartzaile batzuek halakorik egiten dutenean.

17 Deialdi honetan parte hartzean, musikagileek bete-betean onartu beharko dituzte sariaren oinarriak eta epaimahaiaren erabakiak. Erreklamaziorik edo gatazkarik egonez gero, parte-hartzaileek eta sariaren antolatzaileek Espainiako Madril hiriburuko auzitegien jurisdikzioari men egin beharko diote, eta gaztelaniazko testua hartuko da ofizialtzat.

18 Alderdiek proiektua kudeatzeko emango duten informazio guztia isilpekoa da, eta ezin izango zaie hirugarrenei jakinarazi, ezta beste xede batzuetarako erabili ere, indarreko legerian xedatutako salbuespenak salbu.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduak, (Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoak) eta abenduaren 05eko 3/2018 Lege Organikoak (Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoak) xedatutakoa betez, musikagile parte-hartzaileek deialdi honetan ematen dituzten datuak SGAE FUNDAZIOAren ardurapean dagoen fitxategi batean sartuko dira, honako hauek burutzeko: epaimahaiari jakinarazteko; jakinarazpenak bidaltzeko; Sarietako parte-hartzearen kudeaketa administratiborako; irabazleei zor zaien zenbatekoa ordaintzeko banku eta aurrezki-kutxen bidez; emakidaren ebazpena interneten argitaratzeko; SGAE FUNDAZIOAren eta/edo SGAEren jarduera-memoriak egiteko; eta SGAE FUNDAZIOAk zuzenean eta/edo bere kolaboratzaileen bidez burutzen dituen jardueren publikitatea egiteko; edo Sarien garapenerako beharrezkoa izan daitekeen beste edozein kudeaketa burutzeko.

Norberaren datuak babesteko oinarritzko eskubidearen titularrak datuok ikusteko, zuzentzeko, ezabatzeko, mugatzeko eta datuen aurka egiteko eskubideak ditu, eta baita eramangarritasun-eskubidea eta erabaki indibidual automatizatuaren objektu ez izateko eskubidea ere. Eskubideak gauzatzeko hona idatz dezakezu: SGAE Fundazioa, zerbitzu juridikoei, Barbara de Braganza 7, 28004 Madril edo helbide elektroniko honetara: informacion@fundacionsgae.org. Idazki horretan, eskubidearen titularra identifikatzeko beharrezkoak diren datuak, gauzatu nahi den eskubidea eta horretarako zergatia eta egin nahi duen eskaera zehatza adierazi beharko dira, NANaren fotokopiarekin batera.

MATERIALAK BIDALTZEKO

SGAE Fundazioa – Musika Saila

smoralg@fundacionsgae.org

INFORMAZIOA

SGAEren Ordezkaritza Nagusiak eta egoitzak, bai Espainian, bai atzerrian (ikusi helbideak hemen: www.sgae.es).

Interesdunek era guztietako kontsultak egin edo oinarriei buruzko informazio gehiago lortu ahal izango dute helbide hauetan

CNDM

www.cndm.mcu.es

SGAE FUNDAZIOA

informacion@fundacionsgae.org

www.fundacionsgae.org

www.sgae.es

Antolatzaileak:

 **sgae fundazioa**



Laguntzailea:

 **JM España**